

Heriotzaren partida

KIEV (UKRAINA), 1942KO ABUZTUAREN 9A. FC Start eta Flakelf taldeek futbol norgehiagoka jokatu zuten Zenit estadioan. Dinamo eta Lokomotiv talde ukrainarretan aritu ondoren alemaniar eremuetan preso zeuden jokalariek profesional ohiek osatzen zuten Start taldea; Flakelf, aldiz, Luftwaffeko soldaduen taldea zen. Etxekoek 5-3 irabazi zieten naziei.

Sobietarren bertsioaren arabera, partida giro beldur-garrin jokatu zen. Zelaia soldadu armadunetz eta txakurrez inguratuta omen zegoen. Arbitroa SSetako ofiziala zen, bisitarien aldekoa, beraz; alemaniarren falta basatiei ez zien jaramonik egin eta ukrainarren legezko hainbat gol ez zituen ontzat eman. Atsedendian, SSetako beste ofizial batek Starteko jokalariek mehatxatu omen zituen, nahita gal zezaten. Partidaren ondoren, hainbat jokalariek ukrainar heriotzaraino torturatu edo fusilatu zituzten, eta bizirik utzi zituztenei hankak hautsi zizkieten berriro futboleko aritzeko gai izan ez zitezten. Handik aurrera “heriotzaren partida” esango zioten norgehiagokari.

1981ean John Huston film zuzendaria partida horretan oinarritu zen *Escape to victory* pelikula egiteko, nahiz eta bertsio libre samarra egin: filmean, presoek talde militar aliatuek osatu zuten, ez ukrainarrek, partida Parisen jokatu zen eta ez Kieven, Pelék gol bat sartu zuen txilenaz, Silvester Stallonek penalty bat gelditu zuen...

Dirudienez, sobietarrek propagandaren mesedetan emandako bertsioa ere nahiko librea izan zen. Altxairuzko errezela erori ondoren, historialariak partidaren lekuko eta protagonisten testigantzak jasotzen hasi eta oso bestelako bertsioa osatu zuten. Makar Honcharenko Dinamoko jokalariek ohiak esan zuten ez zutela inongo mehatxurik jaso. Mikhail Putistin erdilariaren seme Vladlenek 8 urte zituen eta baloi-jasotzaile aritu zen partidaren haren esanetan, zelaian ez omen zegoen ez soldadu armadunik, ez txakurrik, Hustonek filmean xehetasun hori jaso arren. Arbitroa neutrala izan zen eta alemaniarrek garbi jokatu zuten lekukoak iritziz. Gainera, ez zen alemaniarrek ukrainarren aurka galtzen zuten lehen partida. Alemaniarren okupazioak iraun bitartean okupa-



Start taldeko preso ukrainarrak eta Flakelf taldeko soldadu alemaniarrek partidaren ondoren, “lagunarteko” giroan.

tuen eta okupatzaileen arteko 150 partidaren inguruko dokumentazioa bildu du Volodymyr Hynda historialariak, eta 111 emaitzaren berri jaso ahal izan du: ukrainarrek 60 partida irabazi, hamabost berdindu eta 36 galdu zituzten, baina horrenbeste porroten ondoren alemaniarrek ez zuten irabazleek aurkako inolako neurririk hartu.

Egia da partida jokatu eta egun batzuetara Starteko hainbat jokalariek atxilotu zituztela, eta hilabete batzuk geroago taldeko bost jokalariek hil zituztela SSetan. Baina atxilotuek eta fusilatuek ez zuten zerikusirik zuzenik partidaren emaitzarekin, futbola ez beste jarduerak batzuekin baizik.

Txapeldunen Ligan Realaren aurkari den Shakhtar Donetsk taldeari gertatutakoa argigarria da zentzu horretan. Talde ukrainarrak Stajonovets Stalino izena zuten 1938an, lehenengoz sobietar ligan lehen mailan jokatu zuenean. Gerraren ondoren, egun duen izena ipini zioten eta taldea berriro biltzen saiatu ziren. Nahiz eta *heriotzaren partidaren* Shakhtarreko futbolari ohirik ez zegoen, hiru taldekideek soilik lortu zuten gerra bizirik amaitzea: Bikezinek, Kuznetsovek eta Yurchenkok. Benetako heriotzaren partidak gudu-zelaietan jokatu ziren, ez futbol-zelaietan. ■



Arrastoak

Marcel Prousten maisulana ez zuten argitaratu nahi

THE BULLY PULPIT



1913KO AZAROAN argitaratu zen lehenengoz *Du côté de chez Swann*, Marcel Prousten *À la recherche du temps perdu* sailaren lehen zatia. Berez, liburua 1912ko irailean amaitu zuen idazle frantziarrak, baina Fasquelle eta Ollendorff argitaratzaileek atzera bota zituzten, baita André Gide idazleak ere.

1947an literaturako Nobel saria jaso zuen Gideri ederki damutu zitzaion hartutako erabakia, eta gutun bat idatzi zuen barkamena eta damua adierazteko. Orain gutun horren zirriborroa enkantean salduko dute eta horren truke 100.000-150.000 euro ordainduko dituztela aurreikusten da. ■